

# EBALUAZIO IRIZPIDEAK

LEHEN HEZKUNTZA  
1. ZIKLOA

# **AURKIBIDEA:**

- Arte Hezkuntza**
- Erlijioa**
- Euskara**
- Gorputz Hezkuntza**
- Ingelesa**
- Ingurune**
- Matematika**

# ARTE HEZKUNTZA

## 1. MAILA

**1. Kantatzeko, marrazteko... premia sentitzea, eta gertuko testuinguruko eta hainbat kulturatako pertsonen eta artisten esperientziekin harremanetan jartzea.**

*1.1. Ea erabiltzen dituen musika edota ikusizko arteak egiten dituen jardueretan.*

*1.2. Ea erakusten duen musika-jarduera edo ikusizko jarduera atsegin dituela.*

*1.3. Ea interesatzen zaion artelanak ematen duen informazioa.*

**2. Arte-ekoizpenetan ideiak, behaketak, bizipenak, musika-esperientziak... agertzea, oinarrizko teknikak eta baliabideak erabiliz.**

*2.1. Ea erabiltzen dituen musika-hizkuntzaren edo ikusizko hizkuntzaren kodeak, oinarrizko mailan.*

*2.2. Ea gogoratzen dituen arte-hizkuntzen oinarrizko elementuak, ondoren erabiltzeko.*

**3. Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak aztertzea, eta teknika errazak, materialak eta ekoizpen horietako hizkuntzen oinarrizko elementuak ezagutzea.**

*3.1. Ea erakusten duen entzundako edo ikusitako lana estimatzen duela.*

*3.2. Ea hautematen dituen aurretik aurkeztutako musika-lan edo ikusizko lan baten alderdi garrantzitsuak, entzun edo ikusi ondoren.*

**4. Materialak, naturako elementuak, tresnak, euskarriak, ahotsa, gorputza... probatzea, eta adierazteko eta komunikatzeko erabiltzea.**

*4.1. Ea probak egiten dituen ahotsarekin eta erabiltzen dituen hainbat material, musika-produktu bat edo ikusizko produktu bat egiteko.*

*4.2. Ea interesik eta ekimenik erakusten duen arte-ekoizpenerako.*

**5. Lanaren plangintza egiten du, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arrazoituz.**

*5.1. Ea itxaroten duen apur bat lanean hasi aurretik.*

*5.2. Ea ordenatzen dituen arte-lanean egin beharreko esku-hartzeak.*

**6. Hainbat garai historikotako eta hainbat kulturatako ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteen eta produktuen zenbait funtzio eta erabilera ezagutzea, gertuko esperientziatik abiatuta.**

6.1. *Ea musika-materialak eta ikusizko materialak erabileraren arabera bilatzen dituen.*

6.2. *Ea ardura zaion bere kultura-ondarea eta beste kulturen ondarea ezagutzea.*

**7. Irudiak eta musika egiteko hainbat moduren arteko aldeak ezagutzea, irudi eta musika horiek sortzen diren testuinguru historikoak eta kultura-testuinguruak kontuan hartuta.**

7.1. *Ea egiten duen galderarik musika-objektuari edo ikusizko objektuari buruz.*

7.2. *Ea iritzirik ematen duen landutako musika-lanari edo ikusizko lanari buruz.*

**8. Arte-ekoizpen errazak taldean egitea.**

8.1. *Ea laguntzen duen lan-erritmo egokia izaten, eta saiatzeko den erritmoari eusten.*

8.2. *Ea moldatzeko gaitasunik duen, aldaketarik sortuz gero.*

8.3. *Ea ahal duen neurrian laguntzen dien gainerakoei.*

**9 Arte-jardueretan, ideiak, gertaerak, esperientziak eta bizipenak inhibiziorik gabe agertzea, sormenez eta modu pertsonalean.**

9.1. *Ea atsegini duen artea adierazpide gisa erabiltzeko.*

9.2. *Ea askatasunez erabiltzen dituen soinu-elementuak eta ikusizko elementuak, sentimenduak adierazteko.*

**10. Ikusizko adierazpen estetikoaren eta musika-adierazpenen arteko aldeak eta alderdi komunak ikustea eta hautematea, eta kultura-aniztasun eta aberastasuntzat hartzea.**

10.1. *Ea ageri duen interesik kultura-jardueretan parte hartzeko.*

10.2. *Ea lilura sortzen dioten arte-adierazpenek.*

## **2. MAILA**

**1. Kantatzeko, marrazteko... premia sentitzea, eta gertuko testuinguruko eta hainbat kulturatako pertsonen eta artisten esperientziekin harremanetan jartzea.**

1.3. *Ea erabiltzen dituen musika edota ikusizko arteak egiten dituen jardueretan.*

1.4. *Ea ulertzen duen artearen eta kultura-produktuen komunikazio-alderdia.*

1.5. *Ea erakusten duen musika-jarduera edo ikusizko jarduerak atsegini dituela.*

1.4. *Ea interesatzen zaion artelanak ematen duen informazioa.*

**2. Arte-ekoizpenetan ideiak, behaketak, bizipenak, musika-esperientziak... agertzea, oinarrizko teknikak eta baliabideak erabiliz.**

*2.3. Ea erabiltzen dituen musika-hizkuntzaren edo ikusizko hizkuntzaren kodeak, oinarrizko mailan.*

*2.4. Ea gogoratzen dituen arte-hizkuntzen oinarrizko elementuak, ondoren erabiltzeko.*

*2.3. Ea aztertzen dituen musika-hizkuntzaren eta ikusizko hizkuntzaren parametroak.*

*2.4. Ea behar bezala deszifratzen dituen musika-hizkuntza eta ikusizko hizkuntza.*

**3. Ikusizko ekoizpenak eta musika-ekoizpenak aztertzea, eta teknika errazak, materialak eta ekoizpen horietako hizkuntzen oinarrizko elementuak ezagutzea.**

*3.2. Ea bereizten dituen lan baten barruan kontrasteen diren alderdiak.*

*3.3. Ea erakusten duen entzundako edo ikusitako lana estimatzen duela.*

*3.3. Ea hautematen dituen aurretik aurkeztutako musika-lan edo ikusizko lan baten alderdi garrantzitsuak, entzun edo ikusi ondoren.*

*3.4. Ea erreparatzen dien teknika edo estilo ezberdinei.*

**4. Materialak, naturako elementuak, tresnak, euskarriak, ahotsa, gorputza... probatzea, eta adierazteko eta komunikatzeko erabiltzea.**

*4.3. Ea probak egiten dituen ahotsarekin eta erabiltzen dituen hainbat material, musika-produktu bat edo ikusizko produktu bat egiteko.*

*4.4. Ea aukera bat baino gehiago probatzen duen lan bat interpretatzeko edo berregiteko.*

*4.5. Ea interesik eta ekimenik erakusten duen arte-ekoizpenerako.*

*4.6. Ea ideiarik ematen duen musika-lana edo ikusizko lana hobetzeko.*

**5. Lanaren plangintza egiten du, proposamen jakin baten arabera ezarriko diren faseak arrazoituz.**

*5.3. Ea itxaroten duen apur bat lanean hasi aurretik.*

*5.4. Ea ordenatzen dituen arte-lanean egin beharreko esku-hartzeak.*

*5.3. Ea arazoak igarri eta konponbideak bilatzen dituen.*

*5.4. Ea jarrera kritiko eta eraikitzailea duen ikaskuntza-prozesuan.*

**6. Hainbat garai historikotako eta hainbat kulturatako ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteen eta produktuen zenbait funtzio eta erabilera ezagutzea, gertuko esperientziatik abiatuta.**

*6.1. Ea artearen gizarte-funtzioak ezagutzen dituen.*

*6.2. Ea bereizten duen hautematen dituen musika-mezuen eta ikusizko mezuen norabidea.*

*6.3. Ea musika-materialak eta ikusizko materialak erabileraren arabera bilatzen dituen.*

*6.4. Ea ardura zaion bere kultura-ondarea eta beste kulturen ondarea ezagutzea.*

**7. Irudiak eta musika egiteko hainbat moduren arteko aldeak ezagutzea, irudi eta musika horiek sortzen diren testuinguru historikoak eta kultura-testuinguruak kontuan hartuta.**

*7.2. Ea bereizten dituen artelanaren alderdi garrantzitsuak, testuinguru barruan aurkeztuta.*

*7.3. Ea egiten duen galderarik musika-objektuari edo ikusizko objektuari buruz.*

*7.4. Ea ikusminik ageri duen lanak sortzen diren testuingurua ezagutzeko.*

*7.3. Ea iritzirik ematen duen landutako musika-lanari edo ikusizko lanari buruz.*

**8. Arte-ekoizpen errazak taldean egitea.**

*8.2. Ea laguntzen duen lan-erritmo egokia izaten, eta saiatzen den erritmoari eusten.*

*8.3. Ea arretaz erabiltzen eta jasotzen dituen laneko materialak.*

*8.3. Ea moldatzeko gaitasunik duen, aldaketarik sortuz gero.*

*8.4. Ea ahal duen neurrian laguntzen dien gainerakoei.*

**9 Arte-jardueretan, ideiak, gertaerak, esperientziak eta bizipenak inhibiziorik gabe agertzea, sormenez eta modu pertsonalean.**

*9.3. Ea atsegin duen artea adierazpide gisa erabiltzeko.*

*9.4. Ea askatasunez erabiltzen dituen soinu-elementuak eta ikusizko elementuak, sentimenduak adierazteko.*

*9.5. Ea lanak azken ukituak eginda aurkezten dituen.*

*9.4. Ea adierazkortasunik ematen dien lanei.*

**10. Ikusizko adierazpen estetikoaren eta musika-adierazpenen arteko aldeak eta alderdi komunak ikustea eta hautematea, eta kultura-aniztasun eta – aberastasuntzat hartzea.**

*10.1. Ea egiten duen galderarik inguruko arte-adierazpenei buruz.*

*10.2. Ea hautematen dituen kultura-ereduen arteko desberdintasunak.*

*10.3. Ea ageri duen interesik kultura-jardueretan parte hartzeko.*

*10.4. Ea lilura sortzen dioten arte-adierazpenek.*

# ERLIJIOA

## 1. MAILA

### 1. SINESMENEI buruzko gaitasunak

- 1.1. *Fedearen formularik bakunenen barruan dauden hitzen funtsezko esanahia daki.*
- 1.2. *Sinbolo apostolikoari dagozkion esaldiak bereizteko gauza da.*
- 1.3. *Bere inguruan, urtean zehar gertatzen diren hiru jai edo gurtza edo debozizko jarduera aipatzeko gauza da.*
- 1.4. *Kristau elkartearen jarduerak behatu eta kontatzeko proposamena poztasunez babesten du.*
- 1.5. *Lekuko bezala bizi izan duen, ikusi duen edo parte hartu duen kristau elkartearen jarduera bat atseginez kontatzen du.*

### 2. BIBLIARI buruzko gaitasunak

- 2.1. *Kontakizun ebanjeliko baten edukia kontatzen du.*
- 2.2. *Ebanjelioko kontakizun bateko pertsonaiak izendatzen ditu.*
- 2.3. *Pertsonaia bakoitzak kontakizunean egiten duena izendatzen du.*
- 2.4. *Jesusen bizitzako gertaerarik esanguratsuenak ordenan jartzen ditu.*
- 2.5. *Atsegintasunez eskatzen eta/edo onartzen du berarentzat berria den Ebanjelioko kontakizun edo irudiren bat entzutea edo kontatzea.*

### 3. KRISTAU ELKARTEARI BURUZKO gaitasunak

- 3.1. *Ebanjelioan kontatutako Jesusen jardueraren bat antzematen du kristau elkartearen jardueraren batean.*
- 3.2. *Ikasgelan aipatzen diren edo berak ezagutzen dituen kristau elkartearen jarduerari buruzko galderak egiten ditu.*

### 4. ELIZAREN OTOITZ ETA GURTZARI buruzko gaitasunak

- 4.1. *Liturgi ospakizuna apaintzen duten gauzak aipatzen eta deskribatzen ditu.*
- 4.2. *Kristau liturgi jardueran ikusitako apaingarri, irudi, mugimendu, testu edo abesti estetikoki esanguratsuak errepikatzeke ekimenak atseginez proposatzen edo bultzatzen ditu.*

### 5. KRISTAUTASUNAREN KODE MORALARI buruzko gaitasunak

- 5.1. *Kristau elkarteko kide ezagun batzuk beste lagun bat laguntzeko egiten dituzten jarduerak aipatzen ditu.*
- 5.2. *Jokaerarako arau edo moldeen zerrendan, kristau jokamoldearen adierazgarrien direnak aipatzen ditu.*

### 6. KRISTAU FEDEAREN ADIERAZPEN ARTISTIKOEI buruzko gaitasunak

- 6.1. *Ebanjelioko irudi baten irudikatutako pertsonaiak aipatzen ditu eta/edo agertzen den pasarteaz ezagutzen du.*
- 6.2. *Ebanjelioan inspiratutako irudiari arretaz begiratzen dio eta horri buruzko galderak egiten ditu.*
- 6.3. *Atseginez parte hartzen du gai erlijiosoko edo haurren gozamenerako moldatutako irudi bat jartzen edo argi koloretsuz apaintzen, literatur testuaren deklamazioan edo musika konposizioa entzutean.*

## **7. KRISTAU FEDEAREN GIZARTE-KULTURA ADIERAZPENEI buruzko gaitasunak**

- 7.1. *Atseginez bat egiten du jai baten prestaketan edo gogotsu parte hartzen du bertan.*

## **8. INGURUAN DAUDEN BESTE ERLIJIO BATZUEI buruzko gaitasunak**

- 8.1. *Inguruko talde erlijiosoren bateko pertsonaren bat ezagutzen eta izendatzen du.*

## **2. MAILA**

### **1. SINESMENEI buruzko gaitasunak**

- 1.6. *Sinbolo apostolikoaren esaldi esanguratsuak osatzen ditu.*
- 1.7. *Fedearen formularik bakunenen barruan dauden hitzen funtsezko esanahia daki.*
- 1.8. *Sinbolo apostolikoari dagozkion esaldiak bereizteko gauza da.*
- 1.9. *Bere erreferentzia parrokiari edo kristau elkartearen gauzatzen diren hiru jardueraraino zehaztasunez aipatzeko gauza da.*
- 1.10. *Erreferentziako kristau elkartearen jarduerak esanguratsuenen arduradunak zeintzuk diren badaki.*
- 1.11. *Kristau elkarteak gauzatzen dituen jarduerak nagusietako bakoitza zertan datzan kontatzen du.*
- 1.12. *Inguruko jai erlijioso herrikoien batean egiten diren jarduerak nagusiak kontatzen ditu.*
- 1.13. *Bere inguruan, urtean zehar gertatzen diren hiru jai edo gurtza edo deboziozko jarduerak aipatzeko gauza da.*
- 1.14. *Kristau elkartearen jarduerak behatu eta kontatzeko proposamena poztasunez babesten du.*
- 1.15. *Lekuko bezala bizi izan duen, ikusi duen edo parte hartu duen kristau elkartearen jarduerak bat atseginez kontatzen du.*

### **2. BIBLIARI buruzko gaitasunak**

- 2.6. *Kontakizun ebanjeliko baten edukia kontatzen du.*
- 2.7. *Sinesmen batzuen edo izenburu batzuen artean, bibliako kontakizun batekin bat datorren edukia dutenak aukeratzen ditu.*



- 2.8. *Ebanjelioko kontakizun baten edukia adierazten duen izenburua jartzen du.*
- 2.9. *Ebanjelioko kontakizun bateko pertsonaiak izendatzen ditu.*
- 2.10. *Pertsonaia bakoitzak kontakizunean egiten duena izendatzen du.*
- 2.11. *Jesusen bizitzako gertaerarik esanguratsuenak ordenan jartzen ditu.*
- 2.12. *Ebanjelioko testu baten kontatu edo esandako otoitz bat antzematen du.*
- 2.13. *Ebanjelioko testu batek kontatzen duenaren eta arau moral batek ezartzen duenaren arteko antzekotasun eta aldeak aipatzen ditu.*
- 2.14. *Atsegintasunez eskatzen eta/edo onartzen du berarentzat berria den Ebanjelioko kontakizun edo irudiren bat entzutea edo kontatzea.*

### **3. KRISTAU ELKARTEARI BURUZKO gaitasunak**

- 3.3. *Kristau elkarteak gauzatzen duen jarduera baten eta Ebanjelioko kontakizunean kontatzen diren Jesusen jardueren arteko antzekotasunak aipatzen ditu.*
- 3.4. *Ebanjelioan kontatutako Jesusen jardueraren bat antzematen du kristau elkartearen jardueraren batean.*
- 3.5. *Ikasgelan aipatzen diren edo berak ezagutzen dituen kristau elkartearen jarduerari buruzko galderak egiten ditu.*

### **4. ELIZAREN OTOITZ ETA GURTZARI buruzko gaitasunak**

- 4.3. *Gurtzazko jarduera baten gauzatzen diren jardueren eta erreferentziatzen hartzen den ebanjelioko kontakizun jakin batek kontatzen dituenen arteko antzekotasunak aipatzen ditu.*
- 4.4. *Kristau gurtzako funtsezko jardueraren baten (otoitza, bataioa, eukaristia,...) antzeko ekintza gauzatzen den Ebanjelioko gutxienez kontakizun bat aipatzen du.*
- 4.5. *Liturgi jarduera baten esku hartzen duten pertsonak aipatzen ditu eta bakoitzak egiten duena azaltzen du.*
- 4.6. *Liturgi ospakizuna apaintzen duten gauzak aipatzen eta deskribatzen ditu.*
- 4.7. *Kristau liturgi jardueran ikusitako apaingarri, irudi, mugimendu, testu edo abesti estetikoki esanguratsuak errepikatzeke ekimenak atseginez proposatzen edo bultzatzen ditu.*

### **5. KRISTAUTASUNAREN KODE MORALARI buruzko gaitasunak**

- 5.3. *Kristau elkarteko kide ezagun batzuk beste lagun bat laguntzeko egiten dituzten jarduerak aipatzen ditu.*
- 5.4. *Ebanjelioak kristau jokoaren kode morala laburtzeko aurkezten dituen oinarriko bi arauak aipatzen ditu.*
- 5.5. *Jokoaren arau edo moldeen zerrendan, kristau jokamoldearen adierazgarrien direnak aipatzen ditu.*

### **6. KRISTAU FEDEAREN ADIERAZPEN ARTISTIKOEI buruzko gaitasunak**

- 6.4. *Ebanjelioko irudi baten irudikatutako pertsonaiak aipatzen ditu eta/edo agertzen den pasarteaz ezagutzen du.*
- 6.5. *Ebanjelioan inspiratutako irudiari arretaz begiratzen dio eta horri buruzko galderak egiten ditu.*
- 6.6. *Atseginez parte hartzen du gai erlijiosoko edo haurren gozamenerako moldatutako irudi bat jartzen edo argi koloretsuz apaintzen, literatur testuaren deklamazioan edo musika konposizioa entzutean.*

## **7. KRISTAU FEDEAREN GIZARTE-KULTURA ADIERAZPENEI buruzko gaitasunak**

- 7.2. *Erlijiotasun herrikoiko ospakizunean gauzatzen diren jarduerak esanguratsuak aipatzen ditu.*
- 7.3. *Atseginez bat egiten du jai baten prestaketan edo gogotsu parte hartzen du bertan.*

## **8. INGURUAN DAUDEN BESTE ERLIJIO BATZUEI buruzko gaitasunak**

- 8.2. *Inguruko talde erlijiosoren bateko pertsonaren bat ezagutzen eta izendatzen du.*
- 8.3. *Inguruko talde erlijioso desberdinetako jarduerak eta gauzak bereizgarriak ezagutzen ditu.*
- 8.4. *Objektibotasunez eta deskribapen senez aipatzen ditu beste talde erlijioso batzuetako pertsonak.*

# **HIZKUNTZA**

## **1.MAILA**

**1. Ahozko diskurtsoen esanahia ulertzea, haien erabilerako testuinguruan kokatuta. Testu horien informazio garrantzitsua antzematea, eta beste egoera batzuetan aplikatzea ulertutakoa.**

- 1.1. *Ea testuko gaia identifikatzen duen.*
- 1.2. *Ea interpretatzen duen testuaren oinarriko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua, beharrezkoak direnak testu osoa ulertzeko.*
- 1.3. *Ea jarraitzen dien jarduerak egiteko emandako aginduei edo jarraibideei.*
- 1.4. *Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikaste-ekintzetan.*
- 1.5. *Ea arretaz entzuten duen.*

**2. Haurren bizitzarekin loturako testu idatzi errazak ulertzea, aurrez emandako azterketa-jarraibideak erabiliz.**

*2.1. Ea testuak zer dion azaltzen duen, haren zentzu orokorra adieraziz.*

**3. Hitzez adieraztea gertaerak, bizipenak edo ideiak era antolatuan azaltzen dituzten testu erraz eta laburrak.**

*3.1. Ea ikasleak ulertzeko moduan eta erraz adierazten dituen bere ideiak, iritziak, bizipenak eta jakintzak, ikasgelan gertatzen diren ohiko egoeretan.*

*3.2. Ea gogotsu hartzen duen parte ikaskuntza antolatzeko elkarrizketetan, edo eskolako edukiei buruzko informazioa trukatzeko.*

*3.3. Ea argi eta ozen hitz egiteko ardurarik duen.*

**4. Ikastetxeko harreman-egoeretan parte hartzea, harremanaren oinarritzko arauak betez eta gainerako pertsonen begirunea erakutsiz.**

*4.1. Ea solaskideari begiratu eta entzuten dion.*

*4.2. Ea hitz egiteko txandaren zain egoten den.*

*4.3. Ea gizabidezko arau batzuk erabiltzen dituen.*

*4.4. Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lan-kidetzan eta ikaskuntzan.*

**5. Eredu argiez baliatuta, haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, irakaskuntza-mailari dagozkion egokiera eta zuzentasuna erakutsiz.**

*5.1. Ea komunikazio-egoerara egokitutako edukiak adierazten dituen.*

*5.2. Ea testua txukun eta argi aurkezten duen.*

**7. Lagundu jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez eta erabilpen horren xedea ikastea izanik.**

*7.1. Ea ikasteko erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bere mailari egokitutako euskarriez baliatuta.*

**8. Idazketari buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta, jakintza hori erabiliz, idazketa-sistemaren erabilera sendotzea.**

*8.1. Ea ezagutzen dituen ohiko testuetan esaldia, hitza*

*8.2. Ea landutako ortografia-arauak betetzen dituen.*

**9. Bi hizkuntzetan berdina den oinarritzko terminologia ezagutzea, eta hizkuntza-jardueretan erabiltzea.**

*9.1. Ea dakien zein diren landutako testu-generoen izenak eta idazketaren kontzeptu eta konbentzio nagusiak (testua, esaldia, hitza, silaba, letra, letra larria, letra xehea eta puntua).*

*9.2. Ea interesik duen bere idazlanetan ortografia-arauak betetzeko.*

**10. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta**

**harekiko jarrera baikorra izatea, inguruan hizkuntzak nola erabiltzen diren ikusiz.**

*10.1. Ea hizkuntzekiko jarrera ona duen.*

## **11. Hizkuntza gutxituak garatzearen eta normaltzearen alde dago.**

*11.1. Ea euskara erabili ohi duen eskolako elkarrizketetan.*

*11.2. Ea parte hartzen duen euskal kulturaren transmisioarekin eta sorrerarekin zerikusia duten eskola-jarduera anitzetan.*

## **12. Gelako liburutegia eta mediateka erabiltzea eta haien antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea.**

*12.1. Ea bere zaletasunen arabera aukeratzen dituen literatura-testuak.*

*12.2. Ea liburutegia erabiltzeko arauak errespetatzen dituen eta laguntzen duen ongi funtziona dezan.*

*12.3. Ea gelako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen duen, eta bere kabuz erabiltzen duen.*

## **13. Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.**

*13.1. Ea entzuten dituen era bateko eta besteko literatura-testuak, bere interesekin bat datozenak.*

*13.2. Ea irakurtzen dituen bere adinari egokitutako literatura-testuak.*

*13.3. Ea gogotsu parte hartzen duen esanahi parte-katuak sortzeko negoziazioetan.*

*13.4. Ea bere bizipenekin erlazionatzen duen obraren edukia.*

*13.5. Ea ulertzen duen landutako ahozko literaturako eta literatura idatziko testuen esanahia.*

*13.6. Ea narrazioetako pertsonaia eta gertaera nagusiak hautematen dituen.*

## **14. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasten lagunduko dioten alderdi batzuk identifikatzea.**

*14.1. Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.*

## **2.MAILA**

### **1. Ahozko diskurtsoen esanahia ulertzea, haien erabilerako testuinguruan kokatuta. Testu horien informazio garrantzitsua antzematea, eta beste egoera batzuetan aplikatzea ulertutakoa.**

- 1.1. *Ea testuko gaia identifikatzen duen.*
- 1.2. *Ea gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra eta zehatza ulertzen duen.*
- 1.3. *Ea interpretatzen duen testuaren oinarritzko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua, beharrezkoak direnak testu osoa ulertzeko.*
- 1.4. *Ea jarraitzen dien jarduerak egiteko emandako aginduei edo jarraibideei.*
- 1.5. *Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikaste-ekintzetan.*
- 1.6. *Ea arretaz entzuten duen.*

**2. Haurren bizitzarekin loturako testu idatzi errazak ulertzea, aurrez emandako azterketa-jarraibideak erabiliz.**

- 2.1. *Ea testuaren generoa bereizten duen, eta haren gaia ondorioztatzen duen.*
- 2.2. *Ea ulertzen duen eskolan erabiltzen diren testuetan argi adierazten den informazioa: abisuak, oharrak, gonbidapenak eta eskolako testuak.*
- 2.3. *Ea testuak zer dioen azaltzen duen, haren zentzu orokorra adieraziz.*

**3. Laguntza jasota, informazio zehatza aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.**

- 3.1. *Ea informazio zehatza aurkitzen duen eskolan edo ikaslearen ingurunean erabili ohi diren testuetan, jarraibideak oinarri hartuta.*
- 3.2. *Ea, informazioa aurkitzeko orduan, erabiltzen dituen hizkuntzakoak ez diren osagaiak: irudiak, testuaren egitura, tipografia...*
- 3.3. *Ea aurkitzen duen emandako testuei buruz egiten zaizkien galderari erantzuteko informazioa.*

**4. Hitzez adieraztea gertaerak, bizipenak edo ideiak era antolatuan azaltzen dituzten testu erraz eta laburrak.**

- 4.1. *Ea ikasleak ulertzeko moduan eta erraz adierazten dituen bere ideiak, iritziak, bizipenak eta jakintzak, ikasgelan gertatzen diren ohiko egoeretan.*
- 4.2. *Ea, ikaste-egoeretan, ahozko testu erraz eta laburrak sortzen dituen (deskribapenak, azalpenak), aurrez emandako erduei jarraituz.*
- 4.3. *Ea argi eta ozen hitz egiteko ardurarik duen.*

**5. Ikastetxeko harreman-egoeretan parte hartzea, harremanaren oinarritzko arauak betez eta gainerako pertsonari begirunea erakutsiz.**

- 5.1. *Ea solaskideari begiratu eta entzuten dion.*
- 5.2. *Ea hitz egiteko txandaren zain egoten den.*
- 5.3. *Ea gizabidezko arau batzuk erabiltzen dituen.*
- 5.4. *Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lan-kidetzan eta ikaskuntzan.*

**6. Eredu argiez baliatuta, haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, irakaskuntza-mailari dagozkion egokiera eta**

## **zuzentasuna erakutsiz.**

- 6.1. *Ea egiten dituen testuak sortzeko prozesuaren urratsak (plangintza egitea, testua idaztea eta testua berrikustea), emandako jarraibideak betez.*
- 6.2. *Ea gogoz parte hartzen duen testuaren plangintza egiteko, idazteko eta berrikusteko talde-jardueretan.*
- 6.3. *Ea gero eta hobeto idazten duen, idazketaren oinarritzko arauak betez: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.*
- 6.4. *Ea komunikazio-egoerara egokitutako edukiak adierazten dituen.*
- 6.5. *Ea egiten duen, laguntza jasota, idatzitako testua berrikusi eta zuzenketaren bat.*
- 6.6. *Ea testua txukun eta argi aurkezten duen.*

## **7. Lagundu jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez eta erabilpen horren xedea ikastea izanik.**

*7.1. Ea ikasteko erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak, bere mailari egokitutako euskarriez baliatuta.*

## **8. Idazketari buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta, jakintza hori erabiliz, idazketa-sistemaren erabilera sendotzea.**

- 8.1. *Ea ezagutzen dituen ohiko testuetan esaldia, hitza eta silaba.*
- 8.2. *Ea landutako ortografia-arauak betetzen dituen.*

## **9. Bi hizkuntzetan berdina den oinarritzko terminologia ezagutzea, eta hizkuntza-jardueretan erabiltzea.**

- 9.1. *Ea dakien zein diren landutako testu-generoen izenak eta idazketaren kontzeptu eta konbentzio nagusiak (testua, esaldia, hitza, silaba, letra, letra larria, letra xehea eta puntua).*
- 9.2. *Ea interesik duen bere idazlanetan ortografia-arauak betetzeko.*

## **10. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta harekiko jarrera baikorra izatea, inguruan hizkuntzak nola erabiltzen diren ikusiz.**

*10.1. Ea hizkuntzekiko jarrera ona duen.*

## **11. Hizkuntza gutxituak garatzearen eta normaltzearen alde dago.**

- 11.1. *Ea euskara erabili ohi duen eskolako elkarrizketetan.*
- 11.2. *Ea parte hartzen duen euskal kulturaren transmisioarekin eta sorrerarekin zerikusia duten eskola-jarduera anitzetan.*

**12. Gelako liburutegia eta mediateka erabiltzea eta haien antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea.**

- 12.1. *Ea bere zaletasunen arabera aukeratzen dituen literatura-testuak.*
- 12.2. *Ea parte hartzen duen irakurketa sustatzeko ekintzetan.*
- 12.3. *Ea liburutegia erabiltzeko arauak errespetatzen dituen eta laguntzen duen ongi funtziona dezan.*
- 12.4. *Ea gelako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen duen, eta bere kabuz erabiltzen duen.*

**13. Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.**

- 13.1. *Ea entzuten dituen era bateko eta besteko literatura-testuak, bere interesekin bat datozenak.*
- 13.2. *Ea irakurtzen dituen bere adinari egokitutako literatura-testuak.*
- 13.3. *Ea gogotsu parte hartzen duen esanahi parte-katuak sortzeko negoziazioetan.*
- 13.4. *Ea bere bizipenekin erlazionatzen duen obraren edukia.*
- 13.5. *Ea ulertzen duen landutako ahozko literaturako eta literatura idatziko testuen esanahia.*
- 13.6. *Ea narrazioetako pertsonaia eta gertaera nagusiak hautematen dituen.*
- 13.7. *Ea gogotsu parte hartzen duen olerkiak, bertsoak, abestiak, jolasak eta narrazioak antzeztan, birsortzen eta errezitatzen, eta hori guztia erritmo, ahoskera eta abiadura egokiz egiten duen.*

**14. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasten lagunduko dioten alderdi batzuk identifikatzea.**

- 14.1. *Ea laguntzarik eta azalpenik eskatzen duen.*

# **1. ZIKLOA**

## **1.-Gorputzaren oinarrizko ezagupena lortzea: gorputz atalak eta artikulazioak.**

1.1. *Gorputzaren zatiak eta artikulazioak bereizten ditu*

1.2. *Norberaren ezker eskuin aldeak bereizten ditu.*

## **2.-Oreka egoera ezberdinak bizitzea.**

2.1. *Desoreka egoera ezberdinak esperimentatzen ditu (lurrean, altueran,...).*

## **3.-Koordinazioa eta gorputz mugimendu aukerak esperimentatzea (jolastea).**

3.1. *Mugimendu eta desplazamendu arruntak era koordinatuan egiten ditu.*

## **4.-Espazio eta denboraren egituraketaz jabetzea.**

4.1. *Espazio fisikoaz jabetzen. (debeku eremuak, mugak, joko eremua, ...) da.*

## **5.-Jarduera fisikoa egitea.**

5.1. *Jarduera fisikoa egiteko arropa eta oinetako egokiak erabiltzen ditu.*

## **6.-Oinarrizko trebetasun ezberdinak bizitzea eta praktikan jartzea.**

6.1. *Lekualdatze, biraketa, jauzi eta jaurtiketa-harrerak egiten ditu.*

6.2. *Ardatz longitudinal biratzeko gai da.*

## **7.-Oinarrizko trebetasun sinpleetan koordinazio egokia izatea.**

7.1. *Oinarrizko lekualdaketetan koordinazio egokia du.*

## **8.-Jolasetan parte aktiboa izatea.**

8.1. *Parte hartze aktiboa du gimnasioan egindako jardueretan.*

## **9.-Erritmo-egitura errazak erreproduzitzea gorputza edo tresnekin.**

9.1. *Gorputza edo tresnen bidez erritmo ezberdinak erreproduzitu.*

## **10.-Jolasen eta jardueren arauak betetzea.**

10.1. *Joko arauak errespetatzen ditu.*

## **11.-Kideak onartzea eta errespetatzea, edozein motatako diskriminazioa baztertuz.**

11.1. *Kideak errespetuz onartzen ditu.*



## **12.-Euskal jolasetan parte hartzea eta gozatzea.**

*12.1 Landutako jolasetan modu egokian parte hartzen du.*

# **ATZERRIKO HIZKUNTZA**

## **1. MAILA**

**1.- Ahozko testu sinpleak eta testuinguru batean jarriak ulertzea. Testu horiek lotura zuzena izan behar dute ikaslearen bizipenekin eta gelako jarduera arruntekin, eta ohiko generoak landu behar dituzte. Horrekin batera, testu horien informazio garrantzitsua bereiztea eta ulertutakoa beste egoera batzuetan aplikatzea.**

- 1.1. *Ea testuko gaia antzematen duen.*
- 1.2. *Ea gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra eta informazio zehatz batzuk ulertzen dituen.*
- 1.3. *Ea testuaren oinarrizko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua interpretatzen duen, beharrezkoak direnak testu osoa ulertzeko.*
- 1.4. *Ea entzundako testu baten oinarrizko ideia batzuk gogoratzen dituen, eta ahoz adierazten dituen, galdera zuzenei erantzunez.*
- 1.5. *Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikas-ekintzetan.*
- 1.6. *Ea gogoz entzuteko jarrera daukan.*

**2.- Ikaslearen bizipenekin eta gelako ohiko jarduerekin lotura zuzena duten testu idatzi sinple eta laburrak, ohiko generotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilia.**

- 2.1. *Ea testu idatzi errazak ulertzen dituen, testu horiek aurrez gelan ahoz landutako gaiei buruzkoak izanik: moldatutako edo benetako ipuinak eta poemak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak...*
- 2.2. *Ea gelan ahoz landutako gaiei buruzko testu idatzi errazen gaia antzematen duen, eta testu horien zentzu orokorrak atzematen.*
- 2.3. *Ea testuaren oinarrizko zenbait ideia gogoratzen dituen.*

**3.- Ahozko testu labur eta errazak sortzea, erduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.**

- 3.1. *Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.*

**4.- Gelan, irakasleak zuzendutako ahozko elkarrizketetan parte hartzea, elkarrizketetako oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonetikiko errespetua adieraziz.**

- 4.1. *Ea ulertzeko moduan (hitzez nahiz hitzik gabe) eta lagunduta adierazten dituen berehalako komunikazio-premiak: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea.*
- 4.2. *Ea ulertzeko moduan ematen duen bere buruari buruzko informazioa, hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza-baliabideak erabilia, eta laguntza jasota.*
- 4.3. *Ea gogotsu hartzen duen parte komunikazio-egoera ezagunetan: ohiturak, gelako hizkuntza, simulazioak, antzezpenak, errezitaldiak eta kantak, eta gelako beste jardueretan.*

4.5. *Ea gizartean ohiko diren komunikazio-arauak aplikatzen dituen: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea.*

4.6. *Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan.*

**5.- Idatzi oso labur eta errazak sortzea, erduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.**

5.1. *Ea ulertzeko moduan adierazten dituen testu idatzi erraz eta laburrak, erduei jarraituz.*

5.2. *Ea gelan landutako zenbait ortografia-arau aplikatzen duen.*

5.3. *Ea bere idazlanen txukuntasuna zaintzen duen.*

5.4. *Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.*

**6.- Laguntza jasota, informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; erabilpen horren xedea ikastea izanik.**

6.1. *Ea informazio eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituen ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilita.*

6.2. *Ea programa informatiko hezitzaile nagusiak erabiltzen dituen, mezu xumeak irakurtzeko eta idazteko.*

**7.- Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea, eta jakintza hori erabiltzea, komunikazioa hobetzeko.**

7.1. *Ea gelako komunikazio-trukean, egoki bereizten eta ereduaren antzera errepikatzen dituen ahoskerari, erritmoari, azentuari eta intonazioari dagozkion oinarrizko zenbait arau.*

7.2. *Ea ikasturtean landutako oinarrizko lexikoa ezagutzen eta erabiltzen duen.*

7.3. *Ea, jarraibideak emanda, testuak ulertze eta sortze-prozesuan landutako hizkuntzei buruzko jakintzak eta ortografia-arauak aplikatzen hasia den.*

7.4. *Ea dagokien komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...*

7.5. *Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (aurrez emandako adibideak eta ereduak), sortze-prozesuko zalantzak argitzeko.*

**8.- Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den, eta komunikazio-egoera hainbatetan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea.**

8.1. *Ea lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen dituen, oinarrizko konbentzioak erabiliz: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.*

8.2. *Ea testu moten ezaugarriei buruz beste hizkuntza batzuetan ikasi duena erabiltzen duen ahozko eta idatzizko bere lanetan.*

**9.- Atzerriko hizkuntzarekiko interesa eta jakin-mina adieraztea, komunikaziorako bide eta ikasteko tresna den aldetik.**

- 9.1. *Ea gogotsu parte hartzen duen gelako komunikazio-truke xumeetan.*
- 9.2. *Ea inguruko hizkuntzen aniztasuna onartzen duen.*
- 9.3. *Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik daukan.*
- 9.4. *Ea jakin-minik daukan atzerri-hizkuntza batean edo berea ez bezalako batean hitz egiten dutenekiko.*

## **10.- Literatura-testua plazer-iturritzat erabiltzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.**

- 10.1. *Ea bere adinera eta interesetara moldatutako literatura-lanak (narrazioak eta olerkiak) entzuten eta ulertzen dituen.*
- 10.2. *Ea eskolako liburutegia eta mediateka erabiltzen hasi den.*
- 10.3. *Ea gogotsu parte hartzen duen olerkiak, abestiak eta ipuinak antzeztan, birsortzen, buruz ikasten eta errezitatzen.*
- 10.4. *Ea, laguntza jasota, testuari buruzko iritzia ematen duen, hitzez eta modu sinplean.*
- 10.5. *Ea gelako liburutegia erabiltzeko arauak betetzen dituen eta hura zaintzen eta erabiltzeko moduan mantentzen laguntzen duen.*

## **11.- Ikasten ikasteko estrategia nagusiak erabiltzea, eta hobeto ikasteko alderdi batzuk ezagutzea. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea.**

- 11.1. *Ea laguntza eta azalpenak eskatzen dituen.*
- 11.2. *Ea hiztegi irudidunak erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko eta hitzen esanahiak bilatzeko.*
- 11.3. *Ea egin dituen aurrerapenen balorazio oinarrizkoak egiten dituen.*
- 11.4. *Ea akatsak egitea ikas-prozesuaren parte dela onartzen duen.*

## **12.- Laguntza jasota, gogoz parte hartzea norberaren ikaskuntza ebaluatzeko jardueretan.**

- 12.1. *Ea irakasleak lagunduta, autoerregulazioko zenbait estrategia erabiltzeari ekin dion.*

## **2. MAILA**

**1. Ahozko testu sinpleak eta testuinguru batean jarriak ulertzea. Testu horiek lotura zuzena izan behar dute ikaslearen bizipenekin eta gelako jardura arruntekin, eta ohiko generoak landu behar dituzte. Horrekin batera, testu horien informazio garrantzitsua bereiztea eta ulertutakoa beste egoera batzuetan aplikatzea.**

- 1.1. *Ea testuko gaia antzematen duen.*
- 1.2. *Ea gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra eta informazio zehatz batzuk ulertzen dituen.*
- 1.3. *Ea testuaren oinarrizko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua interpretatzen duen, beharrezkoak direnak testu osoa ulertzeko.*
- 1.4. *Ea entzundako testu baten oinarrizko ideia batzuk gogoratzen dituen, eta ahoz adierazten dituen, galdera zuzenei erantzunez.*

1.5. *Ea jasotako informazioa erabiltzen duen jarduerak egiteko, banakako edo taldekako ikas-ekintzetan.*

1.6. *Ea emandako aginduei edo jarraibideei jarraitzen dien, jarduerak egiteko.*

1.7. *Ea gogoz entzuteko jarrera daukan.*

## **2. Ikaslearen bizipenekin eta gelako ohiko jarduerekin lotura zuzena duten testu idatzi sinple eta laburrak, ohiko generotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilia.**

2.1. *Ea testu idatzi errazak ulertzen dituen, testu horiek aurrez gelan ahoz landutako gaietarako buruzkoak izanik: moldatutako edo benetako ipuinak eta poemak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak...*

2.2. *Ea gelan ahoz landutako gaietarako buruzko testu idatzi errazen gaia antzematen duen, eta testu horien zentzu orokorrak atzematen.*

2.3. *Ea testuaren oinarritzko zenbait ideia gogoratzen dituen.*

## **3. Ahozko testu labur eta errazak sortzea, erduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.**

3.1. *Ea ulertzeko moduan adierazten dituen ahozko testu erraz eta laburrak, erduei jarraituz.*

3.2. *Ea ulertzeko moduan adierazten dituen bere ideiak, emandako ereduko oinarritzko elementuak ordeztuz.*

3.3. *Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.*

## **4. Gelan, irakasleak zuzendutako ahozko elkarrizketetan parte hartzea, elkarrizketetako oinarritzko arauak betez eta gainerako pertsonetikiko errespetua adieraziz.**

4.1. *Ea ulertzeko moduan erantzuten dien (hitzez eta hitzik gabe) eskaerei eta araei.*

4.2. *Ea ulertzeko moduan (hitzez nahiz hitzik gabe) eta lagunduta adierazten dituen berehalako komunikazio-premiak: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea.*

4.3. *Ea ulertzeko moduan ematen duen bere buruari buruzko informazioa, hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza-baliabideak erabilia, eta laguntza jasota.*

4.4. *Ea gogotsu hartzen duen parte komunikazio-egoera ezagunetan: ohiturak, gelako hizkuntza, simulazioak, antzezpenak, errezitaldiak eta kantak, eta gelako beste jardueretan.*

4.5. *Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrizketetan, galderei erantzunez eta elkarrizketa-gaiarekin lotutako iruzkinak eginez.*

4.6. *Ea gizartean ohiko diren komunikazio-arauak aplikatzen dituen: arretaz entzutea, txanda itzarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk betetzea.*

4.7. *Ea gogotsu parte hartzen duen elkarrekiko lan-kidetzan eta ikaskuntzan.*

**5. Idatzi oso labur eta errazak sortzea, erduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.**

*5.1. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen testu idatzi erraz eta laburrak, erduei jarraituz.*

*5.2. Ea ulertzeko moduan adierazten dituen bere ideiak, emandako ereduko oinarrizko elementuak ordeztuz.*

*5.3. Ea testuak sortzeko lanetan laguntzen duen.*

*5.4. Ea lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen dituen, oinarrizko konbentzioak erabiliz: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.*

*5.5. Ea gelan landutako zenbait ortografia-arau aplikatzen duen.*

*5.6. Ea bere idazlanen txukuntasuna zaintzen duen.*

*5.7. Ea gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen duen gelako lanetan.*

**6. Laguntza jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; erabilpen horren xedea ikastea izanik.**

*6.1. Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen dituen ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilia.*

*6.2. Ea programa informatiko hezitzaile nagusiak erabiltzen dituen, mezu xumeak irakurtzeko eta idazteko.*

**7. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilpen-arauei buruzko gogoeta egitea, eta jakintza hori erabiltzea, komunikazioa hobetzeko.**

*7.1. Ea gelako komunikazio-trukean, egoki bereizten eta ereduaren antzera errepikatzen dituen ahoskerari, erritmoari, azentuari eta intonazioari dagozkion oinarrizko zenbait arau.*

*7.2. Ea irakasleak hautatutako formazko zenbait alderdi garrantzitsu ezagutzen dituen, eta horiei buruzko gogoeta egiten hasi den.*

*7.3. Ea ikasturtean landutako oinarrizko lexikoa ezagutzen eta erabiltzen duen.*

*7.4. Ea, jarraibideak emanda, testuak ulertze- eta sortze-prozesuan landutako hizkuntzei buruzko jakintzak eta ortografia-arauak aplikatzen hasia den.*

*7.5. Ea dagokien komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen dituen landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...*

*7.6. Ea laguntza-euskarriak erabiltzen dituen (aurrez emandako adibideak eta ereduak), sortze-prozesuko zalantzak argitzeko.*

*7.7. Ea jarraibideei atxikita, bere testuetako oinarri-oinarrizko akatsak ezagutzen eta zuzentzen hasia den.*

**8. Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den, eta komunikazio-egoera hainbatetan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea.**

*8.1. Ea lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen dituen, oinarrizko konbentzioak erabiliz: fonemak eta horien grafia bat etortzea, hitzen segmentazioa eta puntuazio-markaren bat.*

*8.2. Ea testu moten ezaugarriei buruz beste hizkuntza batzuetan ikasi duena erabiltzen duen ahozko eta idatzizko bere lanetan.*

**9. Atzerriko hizkuntzarekiko interesa eta jakin-mina adieraztea, komunikaziorako bide eta ikasteko tresna den aldetik.**

*9.1. Ea gogotsu parte hartzen duen gelako komunikazio-truke xumeetan.*

*9.2. Ea inguruko hizkuntzen aniztasuna onartzen duen.*

*9.3. Ea atzerriko hizkuntza ikasteko interesik daukan.*

*9.4. Ea jakin-minik daukan atzerri-hizkuntza batean edo berea ez bezalako batean hitz egiten dutenekiko.*

**10. Literatura-testua plazer-iturritzat erabiltzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.**

*10.1. Ea bere adinera eta interesetara moldatutako literatura-lanak (narrazioak eta olerkiak) entzuten eta ulertzen dituen.*

*10.2. Ea eskolako liburutegia eta mediateka erabiltzen hasi den.*

*10.3. Ea gogotsu parte hartzen duen olerkiak, abestiak eta ipuinak antzezten, birsortzen, buruz ikasten eta errezitatzen.*

*10.4. Ea, laguntza jasota, testuari buruzko iritzia ematen duen, hitzez eta modu sinplean.*

*10.5. Ea liburutegian irakurtzea sustatzeko egiten diren jardueretan parte hartzen duen.*

*10.6. Ea gelako liburutegia erabiltzeko arauak betetzen dituen eta hura zaintzen eta erabiltzeko moduan mantentzen laguntzen duen.*

**11. Ikasten ikasteko estrategia nagusiak erabiltzea, eta hobeto ikasteko alderdi batzuk ezagutzea.**

*11.1. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea.*

*11.2. Ea laguntza eta azalpenak eskatzen dituen.*

*11.3. Ea hiztegi irudidunak erabiltzen dituen, zalantzak argitzeko eta hitzen esanahiak bilatzeko.*

*11.4. Ea egin dituen aurrerapenen balorazio oinarrizkoak egiten dituen.*

*11.5. Ea akatsak egitea ikas-prozesuaren parte dela onartzen duen.*

**12. Laguntza jasota, gogoz parte hartzea norberaren ikaskuntza ebaluatzeko jardueretan.**

12.1. *Ea irakasleak lagunduta, autoerregulazioko zenbait estrategia erabiltzeari ekin dion.*



# Natura, Gizarte Eta Kultura Ingurunearen Ezaguera

## 1. MAILA

**1. Inguru fisikoko oinarritzko elementu eta baliabideen adibideak jartzea (eguzkia, ura, airea, lurzorua); haiek pertsonen bizitzarekin duten harremana eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea.**

- 1.1. *Ea deskribatzen dituen izaki bizidunentzat ezinbesteko baliabideak diren inguru fisikoko zenbait elementu (eguzkia, ura, airea, lurzorua).*
- 1.2. *Ea azaltzen duen era oinarritzkoan izaki bizidunen eta inguru fisikoko oinarritzko elementuen artean dagoen harremana.*
- 1.3. *Ea badakien baliabide horiek era desegokian noiz erabiltzen diren (neurrigabearen edo era desegokian erabiltzea, kutsatzea) eta ea proposatzen dituen horiek saihesteko erak.*
- 1.4. *Ea aipatu eta balioesten dituen inguru fisikoa babesteko zenbait neurri.*
- 1.5. *Ea laguntzen duen bere inguru hurbilean neurri horiek gauzatzeko.*

**2. Oinarritzko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.**

- 2.1. *Ea ezagutzen dituen ohiko inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak.*
- 2.2. *Ea ezartzen dituen oinarritzko sailkapen-irizpideak (tamaina, kolorea, mugitzeko era) eta ea sailkatzen dituen landareak eta animaliak ezarritako talde horietako kideak diren kontuan hartuta.*
- 2.3. *Ea erabiltzen dituen hainbat informazio-iturri eta euskarri (behaketa zuzena, argazkiak, IKTak, testuak...) eta ea baliatzen duen informazio hori sailkapenerako.*
- 2.4. *Ea aipatzen dituen etxeko animalia eta landareen oinarritzko beharrak; beharrezkoa denean, ea laguntzen duen haiek zaintzen.*
- 2.5. *Ea jakin-mina agertzen duen izaki bizidunei behatzeko.*

**3. Higienearekin, elikadurarekin, jarduera fisikoarekin, atsedenearekin eta norberaren emozio eta sentimenduak kontrolatzearekin zerikusia duten praktika mesedegarrien adibideak jartzea, eta horiek osasunerako, ongizaterako eta gorputzaren funtzionamendu egokirako duten garrantzia adieraztea.**

- 3.1. *Ea ezagutu eta onartzen duen bere gorputza, eta oinarrizko higiehi ohiturarik gordetzen duen.*
  - 3.2. *Ea bereizten dituen elikagai osasungarriak eta ez-osasungarriak.*
  - 3.3. *Ea jabetzen den elikadura bariatua eta oreka-tua lantzearen, ariketa fisikoa egitearen eta atseden hartzearen garrantziaz.*
  - 3.4. *Ea identifikatzen dituen bere emozio eta sentimenduak (amorrua, beldurra, euforia, bekaizkeria/ jeloskortasuna...), eta aurrera egiten duen horien kontrolean.*
  - 3.5. *Ea ezagutzen dituen etxean eta eskolan arriskutsuak diren espazio, objektu, material eta substantziak, eta hartzen dituen oinarrizko segurtasun-neurriak.*
  - 3.6. *Ea ezagutzen dituen gaixotasun-sintomaren bat eta dakien halakoetan zer egin behar duen.*
4. **Inguruko pertsonak betetzen dituzten erantzukizun eta lanbide garrantzitsuenak adibide errazen bidez identifikatzea eta harremanetan jartzea, betiere, bereizkeria-irizpideak (sexistak, arrazistak...) alde batera utziz**
    - 4.1. *Ea aintzat hartzen dituen inguruko pertsonak egiten dituzten ordaindu gabeko jarduerak eta erantzukizunak.*
    - 4.2. *Ea balioesten dituen etxeko, eskolako eta kaleko eginkizunak eta horietan parte hartzen duen, estereotipo sexistak gaindituz.*
    - 4.3. *Ea parte hartzen duen eta errespetatzen dituen bere kideek egiten dituzten jarduerak.*
    - 4.4. *Ea ezagutzen eta erlazionatzen dituen inguruan ohikoenak diren lanak eta lanbideak, bai eta haiek era-bilitako tresnak eta erremintak ere.*
    - 4.5. *Ea egiten dituen bere herriko eta familiako lan-bideen dramatizazioak eta simulazio-jolasak, eta hautematen duen lanbide bakoitzak duen garrantzia.*
5. **Eskolan, udalean eta Euskal Herrian izan ohi diren zenbait adierazpen kultural hautematea, gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.**
    - 5.1. *Ea antzemate dituen inguruko giza taldeak eta haien arteko harremanak.*
    - 5.2. *Ea errespetatzen dituen gainerako giza taldeen ohiturak eta bizimoduak.*
    - 5.3. *Ea sentikortasun-jarrerarik duen gainerako pertsonen bazterkeria- eta bereizkeria-egoeren aurrean.*
    - 5.4. *Ea aktiboki hartzen duen parte bere taldean egiten diren ospakizunetan (urtebetetzeak, Olentzero, Inauteriak, euskararen jaia...), eta ea errespetatzen dituen beste kultura batzuetako kideek egin ditzaketan ekarpenak, enpatia-jarrerak adieraziz.*
    - 5.5. *Ea balioetsi eta errespetatzen dituen arbasoen ohiturak eta bizimoduak.*
    - 5.6. *Ea ezagutzen duen herriaren iraganari buruzko informaziorik, kontakizunik eta esaera herrikoirik, eta interesa duen haiek iraunarazteko.*
6. **Inguruko garraibide ohikoenak ezagutzea eta oinezko gisa zein lokomozio-bideen erabilzaile gisa jakin beharreko oinarrizko arauak**

**ezagutzea; haiek erabiltzea garrantzitsua dela ohartzea.**

- 6.1. *Ea ezagutzen dituen bere inguruko garraiobideak.*
- 6.2. *Ea ezagutzen dituen kalean ibiltzeko beharrezkoak diren trafiko-seinaleak (semaforoen koloreak, oinezkoen pasabideak...) eta ea errespetatzen dituen.*
- 6.3. *Ea errespetatzen dituen garraiobideen erabiltzaile gisa bete beharreko funtsezko arauak: segurtasun-uhala jartzea, gidariari trabarik ez egitea...*
- 6.4. *Ea bereizten dituen pertsonen eta merkantzien garraiobideak.*
- 6.5. *Ea ohartzen den garraiobide publikoak beharrezkoak eta erabilgarriak direla eta proposamenik egiten duen mugikortasun iraunkorraren alde.*

**7. Familia-bizitzarentzat zein inguru hurbilarentzat garrantzitsuak diren zenbait gertakari denboran ordenatzea, ezarritako erodei jarraituz.**

- 7.1. *Ea bere bizitzako gertakariak denbora-nozioak baliatuz kontatzen dituen (segida, aldiberekotasuna eta iraupena).*
- 7.2. *Ea bildu eta sailkatzen dituen bere historiari buruzko dokumentuak; eta ea kokatzen dituen bere jaiotzatik gaur egunera arteko friso kronologikoan.*
- 7.3. *Ea testuinguru egokietan erabiltzen dituen denboraren neurri-unitateak: eguna, astea, hila, urtea...*
- 7.4. *Ea bere argazkiak eta familiarenak denbora-irizpideari jarraituz antolatzen dituen, bere historia pertsonala berreraikitzeke.*
- 7.5. *Ea interesik duen bere historia pertsonalari buruzko datuak jasotzeko, bai eta bere arbasoen ohitura eta bizimoduak jasotzeko ere.*

**8. Indarrek objektuetan dituzten begi-bistako ondorioak hautematea, eta materialen funtsezko ezaugarriak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea, eta ezaugarriok bere eguneroko erabilerarekin lotzea.**

- 8.1. *Ea antzeman eta ezagutzen dituen eguneroko bizitzako material eta substantzien ezaugarri fisikoak (kolorea, usaina, egitura, pisua/masa, gogortasuna, beste elementuekin konbinatzeko/nahasteko gaitasuna eta abar).*
- 8.2. *Ea lotzen dituen ezaugarri horiek eta objektu zein materialek dituzten erabilerak, inguruko hurbileko adibideak emanaz.*
- 8.3. *Ea ezagutzen dituen behaketak egiteko oinarrizko tresnak. Ea dakien tresna horiek erabiltzen.*
- 8.4. *Ea ematen duen noranzko bereko indarren, ukipen-indarren eta urrutiko indarren adibiderik.*

**9. Material eta substantziekin esperientzia errazak egitea autonomiaz, bai eta eguneroko bizitzako objektuak muntatzea eta desmuntatzea ere, eta horiek nola funtzionatzen duten eta modu egokian nola erabili deskribatzea.**

- 9.1. *Ea trebetasunik duen objektuak muntatzeko eta desmuntatzeko; eta ea*

- ezagutzen dituen horien elementuak eta atalak eta dakien zertarako diren.*
- 9.2. *Ea modu egokian erabiltzen dituen esperimentuak egiteko tresnak, eta ea ezagutu eta errespetatzen dituen prozesuak eskatzen dituen segurtasun-neurriak.*
  - 9.3. *Ea behatu, esperimentatu eta ondorioak ateratzen dituen.*
  - 9.4. *Ea azaltzen dituen esperientziaren nondik norakoak, bai eta objektuen muntatze eta desmuntatzea ere.*
  - 9.5. *Ea jabetzen den prozesuan egindako ikasketa-bideaz.*
  - 9.6. *Ea arduratzen den objektuak, materialak, erremintak... zaintzeaz.*

**10. Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoaren arauak jarraituta zenbait tresna eta erregistro argiak erabiliz.**

- 10.1. *Ea interesik eta jakin-minik duen behaketaren bidez inguruko elementuak ezagutu eta identifikatzeko.*
- 10.2. *Ea egiten dituen erregistroak; interpretatzen dituen grafiko errazak, eta erabiltzen dituen informazioa biltzeko oinarritzko tresnak.*
- 10.3. *Ea egiten duen, espazio oso ezagunetan, objektuen kokalekua deskribatzeko krokis sinplerik.*
- 10.4. *Ea egiten dituen behatutako fenomenoari buruzko informazio aipagarria lortzeko bide diren galderak.*
- 10.5. *Ea aipatzen dituen gertakari eta fenomeno ar-giei buruzko antzekotasunak eta desberdintasunak.*

**11. Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzen da helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzen ditu, eta ez du onartzen, taldekideen arteko berdintasuna abiaburu hartuta, inolako bereizkeriarik.**

- 11.1. *Ea aktiboki hartzen duen parte talde-lanean.*
- 11.2. *Ea trukatzeko dituen ideiak, sentimenduak eta proposamenak.*
- 11.3. *Ea taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen den lankidetzan.*
- 11.4. *Ea egiaztatu eta balioesten dituen beste pertsona batzuek emandako azalpenak.*
- 11.5. *Ea aurrera egiten duen adostasunak lortzeko elkarrizketa- eta komunikazio-estrategia eraginkorrak erabiltzen, jardunbide demokratikoaren oinarritzko printzipioak betez.*
- 11.6. *Ea bere ideiak era lasai eta baketsuan defendatzen ikasi duen, baina uste osoz.*

**12. Bizikidetzaren demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzen ditu; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarritzko arauak bete behar diren premiaz ohartzen da.**

- 12.1. *Ea ezagutzen dituen eskolako bizikidetzaren arau oinarritzkoak.*
- 12.2. *Ea ematen dituen bere ideiak eta baliatzen den elkarrizketaz barne-*

arauak

*adostasunez hobetzeko.*

12.3. *Ea balioesten dituen arauak, bizikidetzak baketsua bermatzeko eta gatazkak*

*ekiditeko bitarteko diren aldetik.*

## 2. MAILA

### **1. Inguru fisikoko oinarrizko elementu eta baliabideen adibideak jartzea (eguzkia, ura, airea, lurzorua); haiek pertsonen bizitzarekin duten harremana eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea.**

- 1.1. *Ea deskribatzen dituen izaki bizidunentzat ezinbesteko baliabideak diren inguru fisikoko zenbait elementu (eguzkia, ura, airea, lurzorua).*
- 1.2. *Ea azaltzen duen era oinarrizkoan izaki bizidunen eta inguru fisikoko oinarrizko elementuen artean dagoen harremana.*
- 1.3. *Ea badakien baliabide horiek era desegokian noiz erabiltzen diren (neurrigabean edo era desegokian erabiltzea, kutsatzea) eta ea proposatzen dituen horiek saihesteko erak.*
- 1.4. *Ea aipatu eta balioesten dituen inguru fisikoa babesteko zenbait neurri.*
- 1.5. *Ea laguntzen duen bere inguru hurbilean neurri horiek gauzatzen.*

### **2. Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.**

- 2.1. *Ea ezagutzen dituen ohiko inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak.*
- 2.2. *Ea ezartzen dituen oinarrizko sailkapen-irizpideak (tamaina, kolorea, mugitzeko era) eta ea sailkatzen dituen landareak eta animaliak ezarritako talde horietako kideak diren kontuan hartuta.*
- 2.3. *Ea erabiltzen dituen hainbat informazio-iturri eta euskarri (behaketa zuzena, argazkiak, IKTak, testuak...) eta ea baliatzen duen informazio hori sailkapenerako.*
- 2.4. *Ea aipatzen dituen etxeko animalia eta landareen oinarrizko beharrak; beharrezkoa denean, ea laguntzen duen haiek zaintzen.*
- 2.5. *Ea jakin-mina agertzen duen izaki bizidunei behatzeko.*

### **3. Inguruko pertsonak betetzen dituzten erantzukizun eta lanbide garrantzitsuenak adibide errazen bidez identifikatzea eta harremanetan jartzea, betiere, bereizkeria-irizpideak (sexistak, arrazistak...) alde batera utziz**

- 3.1. *Ea aintzat hartzen dituen inguruko pertsonak egiten dituzten ordaindu gabeko jarduerak eta erantzukizunak.*
- 3.2. *Ea balioesten dituen etxeko, eskolako eta kaleko eginkizunak eta horietan parte hartzen duen, estereotipo sexistak gaindituz.*
- 3.3. *Ea parte hartzen duen eta errespetatzen dituen bere kideek egiten dituzten jarduerak.*
- 3.4. *Ea ezagutzen eta erlazionatzen dituen inguruan ohikoenak diren lanak eta lanbideak, bai eta haiek era-bilitako tresnak eta erremintak ere.*
- 3.5. *Ea egiten dituen bere herriko eta familiako lan-bideen dramatizazioak eta simulazio-jolasak, eta hautematen duen lanbide bakoitzak duen garrantzia.*

**4. Eskolan, udalean eta Euskal Herrian izan ohi diren zenbait adierazpen kultural hautematea, gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.**

- 4.1. *Ea antzemate dituen inguruko giza taldeak eta haien arteko harremanak.*
- 4.2. *Ea errespetatzen dituen gainerako giza taldeen ohiturak eta bizimoduak.*
- 4.3. *Ea sentikortasun-jarrerarik duen gainerako pertsonen bazterkeria- eta bereizkeria-egoeren aurrean.*
- 4.4. *Ea aktiboki hartzen duen parte bere taldean egiten diren ospakizunetan (urtebetetzeak, Olentzero, Inauteriak, euskararen jaia...), eta ea errespetatzen dituen beste kultura batzuetako kideek egin ditzaketek ekarpenak, enpatia-jarrerak adieraziz.*
- 4.5. *Ea balioetsi eta errespetatzen dituen arbasoen ohiturak eta bizimoduak.*
- 4.6. *Ea ezagutzen duen herriaren iraganari buruzko informaziorik, kontakizunik eta esaera herrikoirik, eta interesa duen haiek iraunarazteko.*

**5. Inguruko garraiobide ohikoenak ezagutzea eta oinezko gisa zein lokomozio-bideen erabiltzaile gisa jakin beharreko oinarritzko arauak ezagutzea; haiek erabiltzea garrantzitsua dela ohartzea.**

- 5.1. *Ea ezagutzen dituen bere inguruko garraiobideak.*
- 5.2. *Ea ezagutzen dituen kalean ibiltzeko beharrezkoak diren trafikoseinaleak (semaforoek koloreak, oinezkoen pasabideak...) eta ea errespetatzen dituen.*
- 5.3. *Ea errespetatzen dituen garraiobideen erabiltzaile gisa bete beharreko funtsezko arauak: segurtasun-uhala jartzea, gidariari trabarik ez egitea...*
- 5.4. *Ea bereizten dituen pertsonen eta merkantzien garraiobideak.*
- 5.5. *Ea ohartzen den garraiobide publikoak beharrezkoak eta erabilgarriak direla eta proposamenik egiten duen mugikortasun iraunkorraren alde.*

**6. Indarrek objektuetan dituzten begi-bistako ondorioak hautematea, eta materialen funtsezko ezaugarriak identifikatzea, aztertzea eta azaltzea,**

**eta ezaugarriok bere eguneroko erabilerarekin lotzea.**

- 6.1. *Ea antzeman eta ezagutzen dituen eguneroko bizitzako material eta substantzien ezaugarri fisikoak (kolorea, usaina, egitura, pisua/masa, gogortasuna, beste elementuekin konbinatzeko/nahasteko gaitasuna eta abar).*
- 6.2. *Ea lotzen dituen ezaugarri horiek eta objektu zein materialek dituzten erabilerak, inguruko hurbileko adibideak emanaz.*
- 6.3. *Ea ezagutzen dituen behaketak egiteko oinarrizko tresnak. Ea dakien tresna horiek erabiltzen.*
- 6.4. *Ea ematen duen noranzko bereko indarren, ukipen-indarren eta urrutiko indarren adibiderik.*

**7. Material eta substantziekin esperientzia errazak egitea autonomiaz, bai eta eguneroko bizitzako objektuak muntatzea eta desmuntatzea ere, eta horiek nola funtzionatzen duten eta modu egokian nola erabili deskribatzea.**

- 7.1. *Ea trebetasunik duen objektuak muntatzeko eta desmuntatzeko; eta ea ezagutzen dituen horien elementuak eta atalak eta dakien zertarako diren.*
- 7.2. *Ea modu egokian erabiltzen dituen esperimenduak egiteko tresnak, eta ea ezagutu eta errespetatzen dituen prozesuak eskatzen dituen segurtasun-neurriak.*
- 7.3. *Ea behatu, esperimentatu eta ondorioak ateratzen dituen.*
- 7.4. *Ea azaltzen dituen esperientziaren nondik norakoak, bai eta objektuen muntatze eta desmuntatzea ere.*
- 7.5. *Ea jabetzen den prozesuan egindako ikasketa-bideaz.*
- 7.6. *Ea arduratzen den objektuak, materialak, erremintak... zaintzeaz.*

**8. Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzen da helburu komunak lortzeko; lankidetzaz eta errespetu jarrerak aintzat hartzen ditu, eta ez du onartzen, taldekideen arteko berdintasuna abiaburu hartuta, inolako bereizkeriarik.**

- 8.1. *Ea aktiboki hartzen duen parte talde-lanean.*
- 8.2. *Ea trukatzeko dituen ideiak, sentimenduak eta proposamenak.*
- 8.3. *Ea taldekideekin berdintasunez eta errespetuz aritzen den lankidetzan.*
- 8.4. *Ea egiaztatzen eta balioesten dituen beste pertsona batzuek emandako azalpenak.*
- 8.5. *Ea aurrera egiten duen adostasunak lortzeko elkarrizketa- eta komunikazio-estrategia eraginkorrek erabiltzen, jardunbide demokratikoaren oinarrizko printzipioak betez.*
- 8.6. *Ea bere ideiak era lasai eta baketsuan defendatzen ikasi duen, baina uste osoz.*

**9. Bizikidetzaz demokratikoaren funtsezko zenbait balio ezagutzen ditu; batik bat, eskolan bete beharrekoak; eta, halaber, herritarrek bete beharreko oinarrizko arauak bete behar diren premiaz ohartzen da.**

- 9.1. *Ea ezagutzen dituen eskolako bizikidetza-arau oinarrizkoak.*
- 9.2. *Ea ematen dituen bere ideiak eta baliatzen den elkarrizketaz barne-arauak adostasunez hobetzeko.*
- 9.3. *Ea balioesten dituen arauak, bizikidetza baketsua bermatzeko eta gatazka ekiditeko bitarteko diren aldetik.*



# MATEMATIKA

## 1. MAILA

**1. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuetan zenbakiek duten balioa interpretatzea eta adieraztea, eta kopuru txikiei (kontatzea, irakurtzea, idaztea, eta alderatzea eskatzen duten gertaera edo egoeretatik ateratakoak) buruzko galdera eta problema errazak formulatzea, hiru zifra bitarteko zenbakiak ordenatzea eta haien posizio-balioa adieraztea.**

*1.1. Ea zuzen interpretatzen duen zenbakien balioa; esaterako, ea zentzuz ematen duen erakusleihoetako prezioetako informazioa eta eguneroko bizitzako testuetako zenbakizko informazioa.*

*1.2. Ea zenbatzen dituen zenbakiak banaka eta multzoka (hamarnaka).*

*1.3. Ea dakien irakurtzen eta idazten bi zifra arteko zenbaki arruntak, eta ea dagozkien izenekin lotzen dituen zenbakiok.*

*1.4. Zifren posizioa aintzat hartuta, ea dakien alderatzen eta ordenatzen bi zifra arteko zenbaki arruntak, eta ea adierazten dituen zenbakizko zuzenean.*

*1.5. Ea galderarik eta problemarik formulatzen duen, eguneroko bizitzan zenbakiak zenbatuz, irakurriz, idatziz eta alderatuz ebazten diren egoerei buruz.*

**2. Eguneroko egoera ohikoetan batuketa- eta kenketa-eragiketen bidez oinarrizko zenbakizko kalkuluak egitea; horretarako, prozedura mentalak, algoritmoak, eta nork bere estrategiak erabiltzen dira.**

*2.1. Ea identifikatzen dituen batuketa- eta kenketa-eragiketak egin beharreko eguneroko egoerak.*

*2.2. Ea buruz erabiltzen dituen batuketa- eta kenketa-taulak, kalkuluak egin behar dituzenean.*

*2.3. Ea zuzen egiten duen batuketaren algoritmo akademikoa, bururakorik gabe.*

*2.4. Ea zuzen egiten duen kenketaren algoritmo akademikoa, bururakorik gabe.*

**3. Neurketarekin zerikusia duten zenbakizko testu errazak interpretatzea; eta ohiko objektuak, espazioak eta denborak neurtzea, neurri-unitate ez-konbentzionalak (arrak, urratsak, lauzak...) eta konbentzionalak erabilita (kilogramoa, metroa, zentimetroa, litroa, eguna eta ordua); neurketa horietarako eskura dauden tresnak erabilita, eta egokiena hautatuta kasu bakoitzerako.**

*3.1. Eguneroko bizitzan ohikoak direnak.*

*3.2. Ea luzerak neurtzen dakien, tresna eta unitate ez-konbentzionalak (arrak, urratsak...).*

*3.3. Ea masa/pisua neurtzen dakien, tresna eta unitate ez-konbentzionalak (beste objektu batzuekin alderatu).*

*3.4. Ea edukiera neurtzen dakien, tresna eta unitate ez-konbentzionalak (potoak eta graduatu gabeko beste ontzi batzuk).*

*3.5. Ea erabiltzen Ea zuzen interpretatzen dituen neurriekin zerikusia duten zenbakizko testu errazak eta dituen denboran orientatzearekin eta hura neurtzearekin zerikusia duten adierazpen ohikoenak (hila, astea, eguna, goiza, arratsalde, ordua).*

**4. Inguru hurbilean duen objekturen baten kokapena deskribatzea, eta baita bera abiapuntu duten lekualdatzeak edo ibilbideak deskribatzea ere; espazio erlazioei buruzko informazioa duten mezu errazak interpretatzea; horretarako zenbait kontzeptu erabiltzen ditu: ezker/eskuin, aurrea/atzea, gora/behera, eta gertu/urruti eta hurbila/urruna.**

*4.1.Ea antzematen duen non dagoen azalpeneko objektua, ahozko azalpena emanda.*

**5. Inguru hurbilean forma angeluzuzenak, triangeluarrak, zirkularrak, kubikoak eta esferikoak dituzten objektuak eta espazioak hautematea, eta ikasleek nork bere erara deskribatzea.**

*5.1.Ea antzematen eta marrazten dituen laukizuzena, triangelua eta zirkulua, ahozko deskripzioa adituta edota antzeko irudi bat ukituta.*

**6. Barra-grafikoetan eta bi sarrerako tauletan adierazten diren datuen oinarritzko interpretazioa egitea, galderak formulatuz, eta grafikoak eta sarrera bikoitzeko koadroak irakurtzea eskatzen duten problema errazak ebatziz.**

*6.1.Ea identifikatzen dituen zenbakizko testu modura eguneroko bizitzako grafikoak eta sarrera bikoitzeko koadroak.*

**7. Matematika-lanetarako jarrera ona izatea, kalkuluak txukun eta ondo antolatuta aurkeztea ontzat jotzea, norberak dituen ahalmenetan konfiantza izatea, eta erronkak eta ikaskuntzarekin zerikusia duten hutsegiteak gainditzeko jarrera izatea.**

*7.1Ea adierazten duen matematika-jarduerak egiteko interesik.*

*7.2.Ea saiatzeko den ebazpideak bilatzen problema bat ebatzi behar duen bakoitzean.*

*7.3.Ea ardura zaion matematika-lanak txukun eta ordenatuta aurkeztea.*

*7.4.Ea bere buruan konfiantzarik duen matematika-jarduerak egiterakoan.*

*7.5.Ea gai den bere kabuz aritzeko zailtasunei eta matematika-erronkei aurre egitean.*

## **2. MAILA**

**1. Eguneroko bizitzako zenbakizko testuetan zenbakiek duten balioa interpretatzea eta adieraztea, eta kopuru txikiei (kontatzea, irakurtzea, idaztea, eta alderatzea eskatzen duten gertaera edo egoeretatik ateratakoak) buruzko galdera eta problema errazak formulatzea, hiru zifra bitarteko zenbakiak ordenatzea eta haien posizio-balioa adieraztea.**

*1.1.Ea zuzen interpretatzen duen zenbakien balioa; esaterako, ea zentzuz ematen duen erakusleiheneko prezioetako informazioa eta eguneroko bizitzako testuetako zenbakizko informazioa.*

*1.2.Ea zenbatzen dituen zenbakiak banaka eta multzoka (ehunaka).*

*1.3.Ea dakien irakurtzen eta idazten hiru zifra arteko zenbaki arruntak, eta ea dagozkien izenekin lotzen dituen zenbakiok.*

1.4.Zifren posizioa aintzat hartuta, ea dakien alderatzen eta ordenatzen hiru zifra arteko zenbaki arruntak, eta ea adierazten dituen zenbakizko zuzenean.

1.5.Ea zenbakiak deskonposatzen eta konposatzen dituen, eta dakien biribiltzen hamarreko edo ehuneko hurbilenera arte.

1.6.Ea galderarik eta problemarik formulatzen duen, eguneroko bizitzan zenbakiak zenbatuz, irakurriz, idatziz eta alderatuz ebazten diren egoerei buruz.

## **2. Eguneroko egoera ohikoetan batuketa- eta kenketa-eragiketen bidez oinarrizko zenbakizko kalkuluak egitea; horretarako, prozedura mentalak, algoritmoak, eta nork bere estrategiak erabiltzen dira.**

2.1.Ea identifikatzen dituen batuketa- eta kenketa-eragiketak egin beharreko eguneroko egoerak.

2.2.Ea buruz erabiltzen dituen batuketa- eta kenketa-etaulak, kalkuluak egin behar dituzenean.

2.3.Ea erabiltzen duen honako estrategia erraz hauetakorik, buruzko kalkuluak egiteko: hamarreko eta ehuneko zehatzak batu; zenbakiak biribildu; emaitza zenbatetsi eta biribildu; edo batugaien ordena aldatu hala errazagoa egingo duela pentsatzen badu.

2.4.Ea zuzen egiten duen batuketaren algoritmo akademikoa, bururakorik gabe zein bururakoekin.

2.5.Ea zuzen egiten duen kenketaren algoritmo akademikoa, bururakorik gabe zein bururakoekin.

2.6.Ea azaltzen duen zein prozesuri jarraitu dion batuketak eta kenketak egitean.

## **3. Neurketarekin zerikusia duten zenbakizko testu errazak interpretatzea; eta ohiko objektuak, espazioak eta denborak neurtzea, neurri-unitate ez-konbentzionalak (arrak, urratsak, lauzak...) eta konbentzionalak erabilia (kilogramoa, metroa, zentimetroa, litroa, eguna eta ordua); neurketa horietarako eskura dauden tresnak erabilia, eta egokiena hautatuta kasu bakoitzerako.**

3.1.Ea zuzen interpretatzen dituen neurriekin zerikusia duten zenbakizko testu errazak eta eguneroko bizitzan ohikoak direnak.

3.2.Ea luzerak neurtzen dakien, tresna eta unitate konbentzionalak (erregela/cm eta zinta metrikoa/m) erabiliz.

3.3.Ea masa/pisua neurtzen dakien, tresna eta unitate konbentzionalak (balantzak eta pisuak, gr eta kg-koak) erabiliz.

3.4.Ea edukiera neurtzen dakien, tresna eta unitate konbentzionalak (litroko, litro erdiko... ontzi graduatuak) erabiliz.

3.5.Ea erabiltzen dituen denboran orientatzearekin eta hura neurtzearekin zerikusia duten adierazpen ohikoenak (hila, astea, eguna, goiza, arratsalde, ordua).

3.6.Zer neurtu behar duen aintzat hartuta, ea neurri-unitate eta tresna egokiak aukeratzeko dituen, eta ea zuzen adierazten duen emaitza.

## **4. Inguru hurbilean duen objektuen baten kokapena deskribatzea, eta baita bera abiapuntu duten lekualdatzeak edo ibilbideak deskribatzea ere; espazio erlazioei buruzko informazioa duten mezuek errazak interpretatzea; horretarako zenbait kontzeptu erabiltzen ditu: ezker/eskuin, aurrea/atzea, gora/behera, eta gertu/urruti eta hurbila/urruna.**

*4.1. Ea erabiltzen dituen ezker/eskuin, aurrea/atzea, gora/behera, gertu/urruti eta hurbil/urrun kontzeptuak, objektu baten kokapena deskribatzean.*

*4.2. Ea erabiltzen dituen aipatu kontzeptu horiek lekualdatze edo ibilbideren bat deskribatu behar duenean (eskuinetara, ezkerretara, gorantz...), eta ea eransten duen elementu kuantitatiborik (bost urrats aurrerantz...).*

*4.3. Ea antzematen duen zein den azaldutako ibilbidea eta ea gai den ibilbide hori egiteko.*

## **5. Inguru hurbilean forma angeluzuzenak, triangeluarrak, zirkularrak, kubikoak eta esferikoak dituzten objektuak eta espazioak hautematea, eta ikasleek nork bere erara deskribatzea.**

*5.1. Ea hautematen dituen irudi lau eta espazial ohikoenak, inguruko objektuetan eta espazioetan.*

*5.2. Ea gai den forma laukizuzenak, triangeluarrak eta zirkularrak bereizteko eta deskribatzeko hiztegi informala erabilia (lerro kurboak eta zuzenak, aldeak).*

*5.3. Ea gai den forma kubikoak eta esferikoak bereizteko eta deskribatzeko hiztegi informala erabilia (errotatzen duen ala ez, forma kurboak ala zuzenak).*

*5.4. Ea antzematen dituen forma kubikoak eta esferikoak, ahozko deskripzioa adituta edota begiak itxita dituela objektua ukituta.*

## **6. Barra-grafikoetan eta bi sarrerako tauletan adierazten diren datuen oinarrizko interpretazioa egitea, galderak formulatuz, eta grafikoak eta sarrera bikoitzeko koadroak irakurtzea eskatzen duten problema errazak ebatziz.**

*6.1. Ea identifikatzen dituen zenbakizko testu modura eguneroko bizitzako grafikoak eta sarrera bikoitzeko koadroak.*

*6.2. Ea, irakurrita, zuzen interpretatzen dituen sarrera bikoitzeko koadroetan eta grafiko errazetan adierazitako datuak eta informazioa.*

*6.3. Ea dakien ebazten grafikoei eta koadroei buruzko problema errazak.*

## **7. Eguneroko bizitzako objektuekin, gertaerekin eta egoerekin zerikusia duten problema errazak ebaztea, problema horietarako batuketa- eta kenketa-eragiketa errazak hautatuta, eta horiei dagozkien oinarrizko algoritmoak edo beste ebazpen-prozeduraren bat erabilia, kalkulagailua barne. Problema ebazteko erabili duen prozesua ahoz adieraztea.**

*7.1. Eguneroko bizitzako truke-, konbinazio-, berdintze- eta alderatze-egoera errazetan, ea identifikatzen, ebazten eta asmatzen dituen eragiketa bakarreko batuketa-problemak.*

*7.2. Ea antzematen dituen problemetako zenbakizko datuak eta oinarrizko elementuak, eta, horiek ebazteko, ea bere erara erabiltzen dituen estrategiak.*

*7.3. Ea dakien zer eragiketa egin behar den problema bat ebazteko.*

*7.4. Ea matematikoki adierazten dituen egin beharreko kalkuluak.*

*7.5. Ea dakien ebazten problemari dagokion eragiketa, dela buruz, dela algoritmoa erabiliz, dela kalkulagailuz.*

## **8. Zenbakiei, kalkuluei, neurriei eta geometriari buruzko problema-egoera irekiak ebaztea eta matematika-ikerketa errazak egitea, horretarako, zenbait estrategia erabilia, eta ikaskideek elkarri lagunduta; problemok ebazteko erabilitako prozesua eta ondorioak ahoz azaltzea.**

8.1. *Ea egiten duen neurtzearekin eta geometriarekin zerikusia duen ikerketa errazik.*

8.2. *Ea besteekin batera aritzen den lanean problema-egoera irekiak eta ikerketak ebazteko.*

8.3. *Ea argi adierazten dituen erabilitako estrategiak eta lortutako ondorioak.*

**9. Matematika-lanetarako jarrera ona izatea, kalkuluak txukun eta ondo antolatuta aurkeztea ontzat jotzea, norberak dituen ahalmenetan konfiantza izatea, eta erronkak eta ikaskuntzarekin zerikusia duten hutsegiteak gainditzeko jarrera izatea.**

9.1. *Ea adierazten duen matematika-jarduerak egiteko interesik.*

9.2. *Ea saiatzen den ebazpideak bilatzen problema bat ebatzi behar duen bakoitzean.*

9.3. *Ea ardura zaion matematika-lanak txukun eta ordenatuta aurkeztea.*

9.4. *Ea bere buruan konfiantzarik duen matematika-jarduerak egiterakoan.*

9.5. *Ea gai den bere kabuz aritzeko zailtasunei eta matematika-erronkei aurre egitean.*